

Gidabaimenak  
**Euskaraz**



# IKASLEAREN ESKULIBURUA

A, A1 eta A2  
baimenak



*Euskadiko Autoeskolen Federakuntza*  
*Federación de Autoescuelas de Euskadi*

# AURKIBIDEA

<b>1. GAIA   OINARRIZKO NOZIOAK</b>	<b>5</b>
DEFINIZIOAK	5
MOTOZIKLETEN AGINTEAK ETA ELEMENTUAK	12
OINARRIZKO ARIKETAK	13
1. TESTA	16
<b>2. GAIA   DOKUMENTAZIOA</b>	<b>19</b>
GIDARIAREN DOKUMENTAZIOA	19
IBILGAILUAREN DOKUMENTAZIOA	26
2. TESTA	33
<b>3. GAIA   BABES-EKIPAMENDUA</b>	<b>35</b>
SEGURTASUN AKTIBOA ETA PASIBOA	35
BABES-EKIPAMENDUA	35
3. TESTA	47
<b>4. GAIA   GIDARIARI ERAGITEN DIOTEN FAKTOREAK</b>	<b>49</b>
GIDARIAREN EGOERA PSIKOFISIKOA	49
ARRETA-GALTZEAK	49
LOA ETA LOGURA	51
NEKEA GIDATZEAN	53
GAIXOTASUNAK ETA SENDAGAIAK	56
ALKOHOLA	60
DROGAK	64
4. TESTA	66
<b>5. GAIA   BIDEA ETA SEINALEZTAPENA</b>	<b>69</b>
BIDEA	69
ARAU OROKORRAK	73
BIDE-MARKAK	75
ZIRKULAZIO-SEINALE BERTIKALAK	82
SEMAFOROAK	118
ALDI BATERAKO SEINALEAK ETA BALIZA-SEINALEAK	122
AGENTEEN SEINALEAK ETA AGINDUAK	124
5. TESTA	127

**6. GAIA | ZIRKULAZIO-ARAUAK****129**

ARAUAK BETETZEAREN GARRANTZIA	129
BIDEAREN ERABILERA	129
ARGIAK ETA SEINALEZTATZE OPTIKOA	135
MANIOBRAK	142
PASATZEKO LEHENTASUNA	149
6. TESTA	152

**7. GAIA | GIDATZE PREBENTIBOKO TEKNIKAK****155**

GINARRIZKO TREBETASUNAK ETA GAITASUNAK	155
AZELERAGAILUA ETA FRENOA KONTROLATZEA	162
7. TESTA	172

**8. GAIA | GINARRIZKO MANTENTZEA****175**

GINARRIZKO MANTENTZE MEKANIKOAREN GARRANTZIA	175
MOTORRA	175
FRENOAK	178
TRANSMISIOA	179
PNEUMATIKOAK	179
ESEKIDURA ETA MOTELGAILUAK	182
DIREKZIO-SISTEMA	182
ARGIAK ETA SISTEMA ELEKTRIKOA	183
8. TESTA	184

**9. GAIA | GIDATZE SEGURUA****187**

TRAFIKO-ISTRIPUAK	187
GIDATZE PREBENTIBO ETA SEGURUA	190
ABIADURA	193
ERREAKZIO-, FRENATZE- ETA GERATZE-TARTEAK	199
BALDINTZA METEOROLOGIKO TXARRETAN GIDATZEA	202
BIDAIK PRESTATZEA ETA GARATZEA	206
9. TESTA	214

**10. GAIA | ISTRIPU-KASUETAN IZAN BEHARREKO PORTAERA****217**

SOROSPEN-EGINBEHARRA EZ BETETZEAREN DELITUA	217
ISTRIPUAREN LEKUA UZTEAREN DELITUA	217
JARDUTEKO ORDENA - BAL	217
ISTRIPUA IZAN DUTENEN AURREAN JARDUTEKO	
GINARRIZKO IRIZPIDEAK	221
10. TESTA	229

## ARAUAK BETETZEAREN GARRANTZIA

Ikusi bideoa



Zirkulazioa segurua izan dadin, bide-erabiltzaile guztien arteko lankidetzaz behar da. Horretara, beharrezkoa da:

- **Ez gogaitzea:** norberaren edo besteen kalte guztiak saihestea eta bide-erabiltzaileak arriskuan ez jartzea.
- **Ezustekorik ez ematea:** maniobrarik ez egitea abisatu gabe. Bidea partekatzen duten gainerako erabiltzaileei garaiz jakinarazi behar zaizkie maniobrak, erreakzionatzeko eta erabakiak hartzeko denbora izan dezaten.
- **Ulertzea:** gainerako erabiltzaileen oharrak ulertzea eta haien akatsekin ulerkorrak izatea.

Oso garrantzitsua da trafikoko eta bide-segurtasuneko arauak betetzea, arau horiek urratzen dituzten edo ezagutzen ez dituzten erabiltzaileek arriskuan jartzen baitute beren eta besteen bizitza.

## BIDEAREN ERABILERA

Ibilgailu guztiek:

- Eskuinaldetik zirkulatu behar dute bide guztietan, galtzadaren ertzetik ahalik eta hurbilen.
- Libre utzi behar dute kontrako noranzkoari dagokion galtzadaren erdia.



Luzetara zatitutako bideetan:

- **2 galtzadako bideetan,** erdibitzaileak edo antzeko sistemak erabiliz, martxaren noranzkoari dagokion **eskuineko galtzadatik ibili behar dute ibilgailuek.**
- **3 galtzadako bideetan,** erdikoa bi noranzkoetan edota noranzko bakarrean erabiltzeko izan daiteke, eta **alboetako galtzadak noranzko bakarrean zirkulatzen.**



Bidean **babesguneak, irlatxoak edo bideratzeko gailuak badaude,** horien eskuinaldean dagoen galtzada-zatitik zirkulatu behar da, martxaren noranzkoan, salbu eta noranzko bakarreko bide batean badaude eta alde batetik nahiz bestetik zirkula badaiteke.

**Plazetan, biribilguneetan eta bide-elkarguneetan,** horien erdigunea ezkerrean utziz zirkulatu behar dute ibilgailuek.



Automobil-gidariak (eta 3.500 kg-tik gorako GMBa duten ibilgailu berezien gidariak) galtzadatik zirkulatu behar dute, bazterbideetan edo beste erabiltzaile batzuentzat erreserbatutako edo zirkulaziotik kanpo utzitako guneetan sartu gabe.



*Bazterbidetik zirkulatu behar dute (edo, zirkulatzeko modukoa ez bada, galtzadaren ezinbesteko zatitik):*

- Animaliek tiratutako ibilgailuek.
- Zikloek, ziklomotorrek eta mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuek.
- 3.500 kg arteko GMBa duten ibilgailu bereziek.
- Txirrindularien jarraipenerako ibilgailuek.
- Gehienez 3.500 kg-ko GMBa duten ibilgailuek, larrialdi-arrazoiengatik gutxiezigizko abiaduran doazenean, zirkulazioa larriki oztopatuz.

**Bazterbidetik zirkulatu behar duten ibilgailuek ezin dute paraleloan zirkulatu, honako hauek izan ezik:**

- **Bizikletek** (biko zutabetan zirkula dezakete, ahalik eta gehien hurbilduz bidearen eskuineko ertzerara).
- **2 gurpileko ziklomotorrek**, bazterbidea ibiltzeko modukoa eta nahikoa bada.

### MUGIKORTASUN PERTSONALEKO IBILGAILUEN (MPI) ZIRKULAZIOA

Ibilgailuak direnez, debekatua dute espaloietan eta oinezkoen guneetan zirkulatzea.

Era berean, debekatuta dute herri barrutik igarotzen diren autobide eta autobietatik, hiriarteko bideetatik, zeharbideetatik eta hiriko tuneletatik zirkulatzea.

**BESTE ARAU BATZUK:**

- Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabiltzaileek alkohol- eta droga-probak egiteko betebeharra dute.
- Beste gidari guztiak bezala, debekatua dute telefono mugikorra edo beste edozein komunikazio-sistema eskuz erabiliz gidatzea.
- Debeekatua dute soinu-hargailuei edo -erreproduzigailuei lotutako entzungailuak edo aurikularrak jarrita gidatzea.

- Gauez edo ikuspen gutxiko egoeretan gidatzean, argiztapenen bat eduki beharko dute. Gainera, erabiltzaileak gainerako gidariak ikusi ahal izateko moduko jantzi edo elementu islatzaileak eraman beharko ditu.

- Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuek zirkulaziorako ziurtagiri bat izan beharko dute, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen ezaugarriei buruzko eskuliburuan jasotako baldintza teknikoak betetzen dituztela egiaztatzeko.

- Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen gidariak babes-kaskoa eraman behar dute, arau bidez ezarritako moduan.

## ERREIEN ERABILERA

**Automobil-gidariak** (eta 3.500 kg-tik gorako GMBa duten ibilgailu berezien gidariak) **eskuineko erreitik zirkulatu behar dute:**



• **Noranzko biko galtzadetan, herri barruan nahiz herritik kanpo:**

- **2 erreikoetan**, bide-marken bidez berezita egon edo ez.
- **3 erreikoetan**, luzetarako marka etenez mugatuta daudenean. **Erdiko erreia aurreratzeko eta norabidea aldatzeko erabil dezakete**, baina inola ere ez dute ezkerreko erreitik zirkulatu behar.
- **Noranzko bereko errei bat baino gehiago duten herritik kanpoko galtzadetan.**

- Arau orokor gisa, **gainerako erreak erabili ahal izango dituzte**, beren noranzkoan, trafikoaren edo bidearen inguruabarrek hala gomendatzen dutenean.
- 3.500 kg-tik gorako GMBa duten kamioiek, furgioiek eta ibilgailu bereziek eta 7 metro baino gehiagoko luzera duten ibilgailu-taldeek aurreratzeko eta bidearen inguruabarrek hala eskatzen dutenean soilik erabil dezakete ondoko erreia (bigarrena).

**Herri barruan, noranzko bereko errei bat**



**baino gehiagoko bideetan**, luzetarako marraz mugatuta daudenean, **beren helmugarako egokiena den erreia erabil dezakete:**

- Gainerako ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen ez badute.
- Norabidez aldatzeko, aurreratzeko, gelditzeko edo aparkatzeko bakarrik utziko dute erreia. Arau hori ez da aplikatzen autobideetan eta autobietan.

## ERREI ERRESERBATUEN ERABILERA

Erreak zenbatzean:

- Ez dira kontuan hartzen ibilgailu eta maniobra jakin batzuetarako erreserbatutako erreak.
- Kontuan hartzen dira abiadura seinaleztatuan joateko errei erreserbatuak.

### Ibilgailu jakin batzuentzat erreserbatutako erreak

#### • AUTOBUSEN ZIRKULAZIORAKO ERRESERBATUTAKO ERREIA (AUTOBUS-ERREIA)

Bidaiarien garraio kolektiboko ibilgailuek zirkulatzeko da. **S-51 seinalearekin eta luzetarako marka zuri batekin seinaleztatuta egoten da.**

- **Marka etengabea bada**, autobusek (eta, hala badagokio, taxiak eta motoek, seinaleztatuta egonez gero) erreia uzteko zeharkatu dezakete, beharrezkoa denean maniobra egiteko edo helmugara iristeko.





- **Marka etena bada**, gainerako gidariek erabil dezakete, baina sartzeko edo norabidea aldatzeko maniobra bat egiteko bakarrik. Pasatzen utzi behar diete bertatik zirkulatu ari diren autobusei (eta, hala badagokio, taxiiei eta motoiei).

• **ZIKLOEN ZIRKULAZIORAKO ERRESERBATUTAKO ERREIA (BIZIKLETA-ERREIA)**



Bidean **bizikleta baten ikurra duen bide-marka batekin edo seinale bertikal batekin (R-407 a)** seinaleztatutako errei bat dagoenean, zikloen gidariek bertatik zirkulatu behar dute nahitaez. **Gainerako erabiltzaileek debekatuta dute errei hori erabiltzea.**

• **ABIADURA SEINALEZTATUAN JOATEKO ERREI ERRESERBATUAK**

Arintasuna hobetzeko, trafikoa antolatzeko eta aurreratzeak errazteko jartzen dira errepideetan. **Ibilgailuek eskuineko erreitik zirkulatu behar dute.** Libre egonik ez erabiltzea ez-legezko jokabidea da, eta arriskutsua.

- Adierazitako abiaduran edo handiagoan zirkulatu ari diren ibilgailuek bakarrik erabil dezakete gutxieneko abiaduraren seinalea duen errea. (Ikus S-50 a, b, c, d eta e seinaleak).
- Debekatuta dago eskuineko errea aurreratzeko erabiltzea.
- S-52, R-506 eta P-17a seinaleek adierazten dute gutxieneko abiaduraren derrigortasunaren amaiera.



**Maniobra jakin batzuetarako erreserbatutako erriak**

• **AZELERAZIO- EDO SARRERA-ERREIA**

**Autobide, autobia edo zirkulazio bizkorreko beste bide baten galtzadara sartzea errazteko errea da**, bertatik zirkulatu ari diren ibilgailuen antzeko abiadura hartzea ahalbidetzen baitu.



• **DEZELERAZIO- EDO IRTEERA-ERREIA**

**Autobide, autobia edo zirkulazio bizkorreko beste bide baten galtzadatik irtetea errazteko errea da**, zirkulazioa oztopatu gabe abiadura moteltzea ahalbidetzen baitu.



• **ITXAROTE-ERREIA**

Norabidea ezkerrera aldatu nahi duen edo eskuinera desplazatu nahi duen **ibilgailu bat galtzadan geratuta geratzea saihesteko errea da.**





Trafikoaren segurtasuna eta arintasuna bermatzeko, agintariak trafikoaren antolamendu berezia ezar dezakete zenbait bidetan, honako hauek ezarriz:

- Zirkulatzeo debekuak edo murrizketak ibilgailu jakin batzuei.
- Ohiko noranzkoaren kontra ibiltzeko erreiak.
- Bidearen zati batzuk erabat edo partzialki debekatzea.
- Ibilbide jakin bati nahitaez jarraitu beharra.
- Bazterbideen erabilera eta bide-itxiera.

ERREI-MOTA	ZEIN IBILGAILUK ERABIL DEZAKETE?	BETEBEHARRAK
<p> Ikusi bideoa</p>  <p><b>ERREI ALDERANTZIKAGARRIA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Noranzko <b>biko bideetan</b> jartzen da.</li> <li>• Luzetarako <b>marka eten bikoitzek mugatuta egon behar du</b>, eta erreiko semaforoekin edo bestelako bitartekoekin erregulatuta. (Gainerako seinaleak errespetatu egin behar dira).</li> <li>• Ez da sartu behar erreialderantzikagarriaren ezkeraldean dagoen erreian.</li> </ul>	<p>Bidean zirkulatzeo baimena duten ibilgailu guztiak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bidearentzat ezarritako abiaduran zirkulatu behar da.</li> <li>• Gutxienez gurutzatze-argia eraman behar da piztuta.</li> </ul>
<p> Ikusi bideoa</p>  <p><b>ZIRKULAZIORAKO ALDI-BATERAKO ERREI GEHIGARRIA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Noranzko biko galtzadetan eta bazterbideetan</b> jartzen da. Bi bazterbideak erabiliz gero, bi erreialderantzik egongo dira zirkulazioaren noranzko batean, eta beste bat kontrako noranzkoan.</li> <li>• <b>Aldi baterako seinaleekin eta baliza-seinaleekin seinaleztatua dago.</b></li> </ul>	<p>Bidean zirkulatzeo baimena duten ibilgailu guztiak, bazterbidetik zirkulatu behar dutenek izan ezik.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gutxienez 60 km/h-ko abiaduran eta gehienez 80 km/h-ko abiaduran zirkulatzeara.</li> <li>• Gutxienez gurutzatze-argia eraman behar da piztuta.</li> </ul>
<p> Ikusi bideoa</p>  <p><b>OHIKO NORANZKOAREN KONTRA IBILTZEKO ERREIA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Trafikoaren arintasuna hobetzeko edo <b>obregatik</b> jar daiteke.</li> <li>• <b>Aldi baterako seinaleekin eta baliza-seinaleekin seinaleztatuta dago</b>, edo semaforo karratuekin edo erreikoekin.</li> <li>• Ezin izango dira albo batera desplazatu, zirkulazioaren noranzko normalera bideratutako erreian edo erreietan sartuz, ezta aurreratzeko ere, <b>ohiko noranzkoaren kontra ibiltzeko jarritako erreitik zirkulatu ari direnak eta erreialderantzik zirkulatu ari direnak.</b></li> </ul>	<p><b>Arintasunagatik</b>, atoirik gabeko turismoek eta <b>motozikletek.</b></p> <p><b>Obregatik</b>, bidean zirkulatzeo baimena duten <b>ibilgailu guztiak.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gutxienez 60 km/h-ko abiaduran eta gehienez 80 km/h-ko abiaduran zirkulatzeara. (1)</li> <li>• Gutxienez gurutzatze-argia eraman behar da piztuta. (Gaitutako erreialderantzik zirkulatu ari direnak zirkulatu ari diren ibilgailuek ere piztuta eraman behar dute).</li> </ul>